

AUTOBUS ZERBITZUAREN ALDAKETA EIBARREN, EUSKAL ITZULIA DELA ETA

Euskotrenek aldaketak sartuko ditu larunbatean, apirilaren 13an, Eibarko Lurraldebus (DB02 eta DB04) eta Udalbus autobus zerbitzuetan, Euskal Itzulia dela eta.

Apirilaren 13ko, larunbateko, goizeko 09:00etatik igandeko, 14ko, 22:00etara, Eibar erdialdea oinezkoentzat mugatuko da. Hori dela eta, DB02 Ermua-Donostia (AP-8) eta DB04 Mallabia-Ondarroa Lurraldebus autobusek asteburuetan bezala zirkulatuko dute.

Apirilaren 13an, larunbatean, 16:10ean Ondarroatik abiatzen den DB04 lineako zerbitzuak saihesbidetik zirkulatuko du Azitaingo biribilgunetik aurrera. Torrekuan geratu ondoren Mallabirantz jarraituko du. Azitaingo, Urkizuko, Azokako eta San Joango geralekuak zerbitzu barik egongo dira.

Apirilaren 13an, larunbatean, 16:20an Donostiatik abiatzen den DB02 lineako zerbitzuari dagokionez, saihesbidetik zirkulatuko du Azitaingo biribilgunetik aurrera. Torrekuan geratu ondoren Ermuarantz jarraituko du. Urkizuko eta San Joango geralekuak zerbitzu barik egongo dira.

Horrez gain, lasterketa igarotzen den bitartean pilaketak gerta daitezke ibilgailuen trafikoan, eta horrek eragina izan dezake autobus zerbitzuan.

Eibarko udal autobus zerbitzuan (Udalbus), larunbatean, apirilaren 13an, ondoren adierazten diren autobusek baino ez dute zirkulatuko Amaña eta Azitain artean, goizeko 09:00etatik aurrera Eibar erdialdea oinezkoentzat mugatuta egongo baita:

- Irteerak Amañatik: 7:20an, 8:00etan eta 8:40an.
- Irteerak Azitainetik: 7:40an eta 8:20an.

Informazio gehiago behar duten erabiltzaileek Euskotrenen 944 333 333 telefono zenbakia erabil dezakete. Konpainiaren www.euskotren.eus webgunean eta twitterreko [@euskotrenEJGV](https://twitter.com/euskotrenEJGV) gunean ere jaso dezakete informazioa.

Igorpen data: osteguna, 2019ko apirilaren 11